

ANAI MIKEL ESNAOLA OTAEGIREN HILETAKO HOMILIA

Irun, 2020.03.26

Hitzaren liturgiako testuak:
Is 25, 6a. 7-9 / Sal 22, 1-3. 4. 5. 6 / Jn 14, 1-6

Jesus Berpiztuaren presentzian bildu gara gaur, elkarrekin gure Anai Mikelen bizitza eta Biziaren Jainkoarekin izan duen betirako topaketa ospatzeko.

Berriro ere, oinazea eta sufrimendua dugu aurrez aurre. Guregan gaur egun eragina duen zerbait da, ez bakarrik gure Anaia zendu zaigulako, baita gizarte bezala ere, pairatzen ari garen osasun krisia dela-eta. Eta aurre egin behar diogulako.

Gizaki garaikideak ez daki heriotzarekin zer egin, baina ezin dugu ez ikusiarena egin, lehentxeago edo geroxeago etorriko baitzaigu. Orain, egunerokotasunaren bertigora itzultzea ezinezkoa gertatzen zaigun honetan, gertatzen ari zaiguna onartzera eta ulertzera irekitzeko egokiera ederra dugu... ikasten jarrai dezagun.

Heriotzak berriz ere bisitatu du gure La Salle-Enea, egun hauetan gehien maite dituztenak eramanez hainbat etxe bisitatzen ari den bezala. Nola erreakzionatu Mikelen heriotzaren aurrean, beste heriotzak hauek guztiak kontuan izanik? Zer jarrera hartu azken adioen aurrean? Zer egin gure hainbat lagun eta pertsona maitatuek gure bizitzetan uzten ari diren hutsunearen aurrean? Ez bagara pena eta tristura baino harantzago joaten, larritasun edo bizitzarekiko erremina baino harantzago... agian ez dugu oraindik bizitzen ikasi.

Bizi ditugun egoerak Bizian eralda daitezen, beharrezkoa zaigu bizi izan dugunari buruz galdetzea, errautsen zaporea etai biziaren zaporea dastatzea, atsekabe eta porroten sentazioak alde batera uztea, gertatzen zaigunari aurre egin eta gainditzen ahalegintzea. Oinaze zaizkigu hiltzen diren pertsonak, guri orain Mikel, mingarri zaizkigu osasuna galtzen dutenak, mingarri hiltzen laguntzeko ere inor ez dutenak... ireki gaitzen egoera guzti hauetara. Ez datu huts bailiran, geure bizitzan tokia egiten diegun besteen bizitzak baizik. Momentu hauetan, bizi dezagun geldialdia, behartutako berrogeialdia, bizi izan duguna Bizian eralda dadin, gaur eguneko egoerak ez daitezen bizitza gelditzen den zerumuga ilun bilakatu, bizitzen ikasten jarraitzeko abagune baizik.

K. Rahner-ek zioenez, *“bihotz jakintsu eta apala baldin badugu eta azaleko eta pazientzia gutxikoaren begirada baino barnerago ikusten ohitzen bagara”* badira orduan bakarrik bizi ditzakegun gauzak. Eska diezaiogun Jaunari ken diezagula *“tapatzen gaituen estalkia, estaltzen gaituen zapia”*, haren presentzia deskubri dezagun hemen, gure artean, eta utz diezaiogun *“bidea, egia eta bizia”* denak argi gaitzan. Ez digu inoiz huts egingo.

Jainkoak txukatu ditu zalantzarik gabe Mikelen aurpegiko malkoak, Harengan baitzuen jarria itxaropen osoa. Guri dagokigu haren biziaren dohaina ospatzea, gozatzea eta eskertzea. Mikel martxoaren 24an jaio zen, orain 90 urte, Beizamako Aitzalde baserrian, Frantzisko eta

Tomasaren besoetan. Hamabi urterekin joan zen Irungo Nobiziotza Txikira, non jantzi zuen Anaien abitua Nobiziotza egiteko. Lehenengo profesaren ondoren Eskolastikadua egin zuen eta Elizako Magisteritza lortu. Betirako botoak Bilbon egin zituen 1955ean, hogeita bost urte zituenean. Bere formazioa Estatuko Magisteritzarekin eta Maisutza Industrialarekin osatu zuen, amaitzeko Lizentziatura atera zuen Historian (Zaragozan, ikasle bost urtetan, 1970 eta 1975 artean). Bere formazio iraunkorraren barnean CEL Madrilen egin zuen eta Kateketika ikasketak Salamancan (1975-76 ikasturtea).

Mikelek bere hezkuntza-zerbitzuan bi urte egin zituen Altza-Herreran (Donostia), lau Santiago Apostolen (Bilbo), bost Beasainen, eta bederatzi orduan esaten zitzaion Villafranca de Orian, haietatik bi Zuzendari gisa. Bere formazio-aldiaren ondoren (1970-76) Gipuzkoara itzuli zen, Eibarrera hain zuzen, hiru urtez bere gain hartuz Isasiko Zuzendaritza Teknikoa; bere ibilaldi apostolikoa Zarauzko bere La Salle-San Jose maitean bukatu zuen hogeita hamalau urte luze bertan eginez. Oso balioztatua eta maitatua izan zen bere hezkuntza zereginagatik, ingurukoarekiko gertutasun eta harremanengatik eta gogoratua baita baratzeko lanagatik ere, elkartearen zerbitzatzeko beste bide bat.

2013an etorri zen Irungo Familia Santua Elkartera. Bertan egin ditu azken zazpi urte hauek 90 urte bete zituen egunera arte. Egun honetan pozik jaso ondoren Etxeko lankideen eta Elkarteko Anaien zorion-agurra, biziaren Jaunarekin berarekin ospatu nahi izan zuen, berarentzat prestaturik zuen egoitzan.

Zalantzarik gabe bere azken pozaldian ez ziren urrun egongo zazpi urte hauetan La Salle Eneako Elkarteko pertsonengatik jasotako hainbat eta hainbat zaintza eta laztan: Anaiengandik, zerbitzuetako lankide, laguntzaile eta zaintzaile, erizainengandik... Hauek eskaini die denboraldi guzti honetan hurbiltasuna eta adiskidetasuna. Mila esker zuei, horregatik guztiagatik.

Izan dezagun esker oneko oroipena, La Salle Enean eta Adineko Anaien beste elkarteetan, egun hauekako osasun alarman, Jainkoaren benetako irudi diren zaintzaile eta erizainen oroipen eskertua. Beraiek ahuldadean irribarretxo bat eskainiz eta aurpegietako malkoak txukatuz, bakoitzaren bizitzaren alde eginez, gorputzen oinazeak arintzen saiatuz, beraien onena emateko gauza izanez eta egunez egun biziaz betetako eskuzabalez eta bihotz handiz arriskatuz..., horrela laguntzen digute egungo egoera zailari aurre egin diezaiozun eta gaituz; eta, azken batez, heriotza azkenean garaitua izango den konfiantza indartzen dute gure baitan.

Mikelengan pertsona apal, xume, langile eta goitik beherako erlijioso batekin egin dugu topo; elkartekide jator eta elkarte bizieran laguntzaile aparta, bereziki elkarte txikietan, baita salletar hezitzaile bokazioari emana ere eta prestasun handiko, bere eskutan jarritako zereginetan arduratsu, Zuzendari on funtzio hori betetzea egokitu zaionean.

Horregatik bere bizitzaren dohainak ez du zirrikiturik uzten samindura, zalantza edo haserrealdietako hitzetarako. Konfiantzazko otoitzerako baizik: *“Zure eskuetan uzten dugu, Aita ona, gure Anaiaren arima”*. Jesus Berpiztuak, Magdalako Mariak hilobi hutsaren aurrean baratzezain gisa hartu zuen berak, bere izenez jada deitu dio, *“Mikel”*, eta gure Anaia, bizitza

osoan “*maisu* ” izan duenarekin betirako besarkadan bat egin da. Konfiantza hau da gure fededun-bihotza heriotzaren aurrean bakez eta esperantzaz betetzen duena.

Zalantzarik gabe, egun hauetan bizitzen ari diren hainbeste “infernua” alaitasun-iturri bihurtzea ez dagokigu guri bakarrik. Gure eskuetan dagoena, ordea, zera da, beste begiz kontenplatzea errealitate horiek eta haien barnean beste desio batekin sartzea. Jainkoaganako esperantzaz bizitzea, egiatan sinestea Jesus pobrezia, sufrimendua eta oinazearen baitan bizitzera etorri zela. Jainkoa gizaki egin zen gurekin egoteko.

Elkarte gisa, ez gaitezen mugatu heriotzen aurrean pasiboki begira egotera, ezta senide maiteengatik negarrez gelditu direnak kontsolatzera ere. Une hauetan gure erreakzioa izan dadila senide-elkartasunarena sufritzen ari diren guztiekin, lankidetzarena hainbeste sufrimendu arintzen ari direnekin eta gure jokaera sozialki arduratsuekin bizia gure inguruan baieztatzearen alde ekin dezagun eta borrokatu heriotzaren aurka.

Kristauok sinesten dugu biziaren aldeko gure irrika Jainkoak entzuna duela. Jainkoak Bizitu duen Jesu Kristo Aitak gure oihua entzun duenaren zeinu eta berme da, den oro biziaren osotasunera bideratu nahi duenaren zeinu eta berme. Jainkoak, “biziaren adiskideak”, ezetz esan dio heriotzari.

Anai Mikel, Jainkoaren Ontasunaren misterioaren eskuetan uzten zaitugu.

Hura da zuretzat guk eskain diezazukegun guztia baino toki seguruagoa.

Goza ezazu bizi beteaz, izan zoriontsu haren baitan.

Egun handira arte!